**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2016ko Azaroak 29 / 29 - Noviembre - 2016**

**TOKIA / LUGAR:** SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 29/11/2016

**HASIERA / INICIO:** 17:00 horas

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna

Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Doña Rosa Maria Mintegi Egileor andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Doña Maria Juliana Perera Figueredo andrea
Don Jorge Varela Dorrio jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea

Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2016KO UZTAILAREN 19KO, 2016KO IRAILAREN 27KO ETA URRIAREN 25EKO OHIKOAK.**

IRAKURRI OSTEAN, aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2016ko uztailaren 19ko, 2016ko irailaren 27ko eta urriaren 25eko ohikoak hain zuzen ere.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: 2016ko uztailaren 19ko aktaren inguruan zerbait esateko?

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Ikusi dugu 3. puntuan Ogasuneko irizpena dagoela, eta bertan ipintzen du gure aldeko bozka egon zela, eta gu abstenitu egin ginen; Herriaren Eskubideak alde egin zuen baina gu abstenitu egin ginen. Hori zuzenduta, ez daukagu arazorik.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Orain esaten dugu, baina, egia esan, akta guztietarako balio du; guk, normalean, osoko bilkuretan euskaraz hitz egiten dugu eta konturatu gara itzulpenetan ez dela genero ikuspegia errespetatzen, euskaraz hitz egiten dugunean ez dago arazorik baina itzulpena egiterakoan ez da zaintzen, eta eskatzen dugu kontuan izatea.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, Euskal Herria Bildu Del Amo Castro jauna eta Euskal Herria Bildu Bravo Zubillaga jaunaren abstentzioarekin, **ONARTU EGITEN DU 2016ko uztailaren 19ko** Osoko Bilkuraren ohiko **akta.**

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES CORRESPONDIENTES A LAS ORDINARIAS DE 19 DE JULIO, 27 DE SETIEMBRE Y 25 DE OCTUBRE, TODAS ELLAS DE 2016.**

DADA LECTURA a los borradores de las actas de las sesiones anteriores, correspondientes a las Ordinarias de 19 de Julio, 27 de Setiembre y 25 de Octubre, todas ellas de 2016.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: ¿Tienen algo que aportar en torno al acta del 19 de julio de 2016?.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Hemos visto que el punto 3 contiene el dictamen de Hacienda y consta que nuestro voto fue a favor, pero nosotros nos abstuvimos. Herriaren Eskubidea votó a favor, pero nosotros optamos por la abstención. Una vez realizada dicha corrección, no tenemos ningún problema.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Lo decimos ahora, pero la verdad es que sirve para todas las actas: nosotros, normalmente, hablamos en euskera en los plenos y nos hemos dado cuenta de que en las traducciones no se respeta la perspectiva de género. No hay problemas cuando hablamos en euskera, pero no se cuida al realizar las traducciones y pedimos que se tenga en cuenta.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría y con la abstención de los Concejales Sr. Del Amo Castro (EH Bildu) y Sr. Bravo Zubillaga (EH Bildu), dada su inasistencia a la misma, **APRUEBA** el **Acta** del Pleno Ordinario de **19 de Julio de 2016.**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: 2016ko irailaren 27ko aktaren inguruan zerbait esateko?

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Uste dut zuzenduta dagoela, baina jaso dugun ereduan aurreko akats batetik zetorren akats bat zegoen. Irailaren 27an abuztuaren 29ko akta onartu genuela zihoen, mahaien zozketaren ingurukoa, eta ni ez nintzela bertan egon ageri zen, beraz, irailaren 27koan suposatzen zen abstenitu egin nintzela. Jakinarazi diet Idazkaritzakoei eta esan didate aldatu dutela eta akatsa zuzendu dutela.

BOZKETA egin ostean.

Aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2016ko irailaren 27ko ohiko akta.**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: 2016ko urriaren 25eko aktaren inguruan zerbait esateko?

BOZKETA egin ostean.

Aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2016ko urriaren 25eko ohiko akta.**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: ¿Tienen algo que aportar en torno al acta del 27 de septiembre de 2016?

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Creo que ya está corregido, pero en el modelo que hemos recibido había un error que se arrastraba de un error anterior y que hacía referencia a que el 27 de septiembre habíamos aprobado un acta del 29 de agosto, que fue la del sorteo de las mesas y en la que yo constaba como que no había asistido, con lo cual, en la del 27 se septiembre se suponía que yo me estaba absteniendo; ya lo he comunicado en Secretaría y me han dicho que ya está cambiado y subsanado el error.

PREVIA votación realizada al efecto.

Por unanimidad, **APRUEBA** el **Acta** del Pleno Ordinario de **27 de Setiembre de 2016**.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: ¿Tienen algo que aportar en torno al acta del 25 de octubre de 2016?

PREVIA votación realizada al efecto.

Por unanimidad, **APRUEBA** el **Acta** del Pleno Ordinario de **25 de Octubre de 2016**.

## BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:

### 1. SEIHILEKOAREN LIKIDAZIOA.

* Kontuhartzaile ordea **Velasco Perez andreak**: Diru-sarreren exekuzio maila 2016ko ekainaren 30ean %62,60koa izan da; ehuneko horretatik %79,63a ohiko diru-sarrerei dagokie eta %2,19a kapitaleko diru-sarrerei. Gastuari dagokionez, exekuzio maila %36,92koa izan da; horretatik ohiko gastua %43,18a izan da eta kapitalekoa %12,97a.

Urtea aurrera doan neurrian ikusiko dugu aldatuz joango dela diru-sarreren eta gastuen exekuzio maila. Jakinaren gainean izango zaituztegu.

## DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:

### LIQUIDACIÓN DEL 1º SEMESTRE DE 2016.

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Perez**: El nivel de ejecución de los ingresos a fecha de 30 de junio de 2016 ha sido del 62,60 %. De ese porcentaje, 79,63 % corresponde a ingresos ordinarios y el 2,19 % a los ingresos de capital. En cuanto a los gastos, el nivel de ejecución ha sido de un 36,92 %, del cual un 43,18 % corresponde a gasto ordinario y un 12,97 % a gasto de capital.

Veremos en la medida que avance el año que el nivel de ejecución de los ingresos y gastos irá cambiando. Les mantendremos informados.

**BESTE ZENBAIT.**

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Gainerako espediente guztiak zuen esku daude Idazkaritza Orokorrean.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

**OTROS.**

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): El resto de los expedientes se encuentran disponibles en la Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- IZOTZ GUNERAKO PREZIO PUBLIKOAREN PROPOSAMENA ONARTZEA. (GAZTERIA ETA KIROL BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA, 2016KO AZAROAREN 10EKOA).**

IRAKURRI OSTEAN Gazteria eta Kirol Batzordearen irizpena, 2016ko azaroaren 10ekoa, eta honako hau dioena:

"*2016ko azaroaren 10eko Gazteria eta Kirol Batzordearen, izotz gunerako ondorengo prezio publikoak onartzen dira:*

| | |
|---|---|
| *14 urte beherakoak* | *3,00 €* |
| *Helduak* | *3,50 €* |
| *Egun Herrikoia* | *2,50 €* |
| *Elkartekideak* | *2,50 €* |

*Ondorengo bozkaketarekin:*

- *Alde: Jose Mari Andres (EAJ/PNV), Harri Guridi (EAJ/PNV), Francisco Garate (PP) eta Mauricio Garcia PSE-EE (PSOE).*
- *Kontra: Ez da ematen.*
- *Abstentzioak: Eider Uribe (EH Bildu), Aritz Bravo (EH Bildu) eta Julian Ríos (Herriaren Eskubidea).*"

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

**TRES.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE PRECIO PÚBLICO PARA LA PISTA DE HIELO. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE JUVENTUD Y DEPORTE DE 10 DE NOVIEMBRE DE 2016).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Juventud y Deporte en sesión de 10 de Noviembre de 2016, del tenor literal siguiente:

"*En Comisión informativa del área de Juventud y Deporte del 10 de Noviembre de 2016 se aprueban los siguientes precios públicos para la pista de hielo:*

| | |
|---|---|
| *Menores de 14 años* | *3,00 €* |
| *Adultos* | *3,50 €* |
| *Día Popular* | *2,50 €* |
| *Asociaciones* | *2,50 €* |

*Con la siguiente votación:*

- *A favor: Jose Mari Andres (EAJ/PNV), Harri Guridi (EAJ/PNV), Francisco Garate (PP) y Mauricio Garcia PSE-EE (PSOE).*
- *Kontra: No se dan.*
- *Abstenciones: Eider Uribe (EH Bildu), Aritz Bravo (EH Bildu) y Julian Ríos (Herriaren Eskubidea).*"

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Kontuhartzaile Ordea **Velasco Perez andreak**: 2016ko azaroaren 10eko Gazteria eta Kirol batzordeak Izotz Gunerako prezio publikoen onarpenaren aldeko irizpena hartu zuen. Prezioak ondorengoak dira:

14 urtetik beherakoentzat: 3 euro.
Helduak: 3,5 euro.
Egun herrikoia: 2,5 euro.
Elkartekideak: 2,5 euro.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Prezio publikoen gaiari dagokionez, hobariak aplikatzeari dagokionez tasak homogeneizatzea gustatuko litzaigukeela aipatuko dugu. Beste eremu batzuetan murrizketak daude arrazoi ugarirengatik, langabezia-egoeragatik, 65 urtetik gorakoentzat... Gustatuko litzaiguke kenkari horiek txertatzea egoera pertsonal horietara.

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Erabiltzaile asko dituen izotz pista bat daukagu, baina kostua oso handia da. Guk uste dugu dagoen egoera ekonomikoa egonda gastu handiegia dela, diru kopuru horrekin gazteria politika asko egin ahal direla.

Gustatuko litzaiguke honen inguruko irakurketa sakonagoa egitea. Ikusten dugu, baita ere, kontsumo aldetik ez dela jasangarria, eta prezio publiko bat ipini edo aldatzen den bakoitzean informe ekonomiko batekin joan behar dela. Kasu honetan ez da txosten ekonomikoa egin, proposamena bakarrik.

Ondo ikusten dugu Herriaren Eskubideak esandakoa, baina uste dut benetan beharrizanak dituzten familiei oparitu egiten zaizkiela sarrerak, eta, ondo ikusten dugunez, espero dugu hurrengo urteetan ere horrela jarraitzea.

Gu abstenitu egingo gara, baina ez proposamen hau ez zaigulako gustatzen, globalki begiratzen dugulako baino.

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Perez**: El 10 de noviembre del 2016, la Comisión de Juventud y Deportes, dictó a favor de la aprobación de los precios públicos para la pista de hielo. Los precios son los siguientes:

Para menores de 14 años: 3 euros
Adultos: 3,5 euros
Día popular: 2,5 euros
Socios: 2,5 euros

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: En cuanto al tema de los precios públicos, comentaremos que nos hubiera gustado que vayamos a homogeneizar lo que son las tasas en lo relativo a la aplicación de bonificaciones. En otros ámbitos hay reducciones por diferentes razones, situaciones de desempleo, mayores de 65 años... Nos gustaría que se incorporasen estas deducciones a esas situaciones personales.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Tenemos una pista de hielo que cuenta con muchos usuarios, pero el coste es muy grande. En nuestra opinión, considerando la situación económica en la que se encuentra, el gasto es demasiado grande; creemos que con esa cantidad de dinero se pueden llevar a cabo muchas políticas de juventud.

Nos gustaría hacer una lectura más profunda sobre el tema. Así mismo, hemos visto que tampoco es sostenible en cuanto al consumo y cada vez que se establece o modifica un precio público, se debe presentar un informe económico. En este caso no se ha elaborado el informe económico, tan solo se ha elaborado la propuesta.

Nos parece bien lo que ha comentado Herriaren Eskubidea, pero creo que las familias necesitadas reciben las entradas de regalo, y como lo vemos adecuado, esperamos que en los próximos se siga así.

Nosotros optamos por la abstención, pero no porque no nos guste esta propuesta, sino porque la consideramos globalmente.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaixa hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAIKA, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 1 Alderdi Popularra.
- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoa ren botoarekin, hauxe erabaki du:

**Lehenengoa**.- Izotz Gunerako Prezio Publikoak onartu egiten du, zehetasun hauek aintzat hartuta:

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: ONCE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 2 del Pertido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 1 del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

**Primero**.- Aprobar los Precios Públicos para la Pista de Hielo, según el siguiente detalle:

| | |
|---|---|
| *14 urte beherakoak / Menores de 14 años* | *3,00 €* |
| *Helduak / Adultos* | *3,50 €* |
| *Egun Herrikoia / Día Popular* | *2,50 €* |
| *Elkartekideak / Asociaciones* | *2,50 €* |

**Bigarrena**.- Honako Prezio Publikoak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean sartuko dira indarrean.

Hori guztia abenduaren 16ko 9/2005 Toki Ogasunei buruzko Foru Arauko 50. artikuluak ezarritakoarekin bat etorrita.

Prezio Publikook udalaren webgunean <www.durango.eus> jasoko dira."

**Segundo**.- Los Precios Públicos a los que el presente Acuerdo se refiere, entrarán en vigor a partir de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 50 de la Norma Foral 9/205, de 16 de Diciembre, de Haciendas Locales.

Los referidos Precios Públicos podrán ser consultados en la página WEB de este Ayuntamiento: www.durango.eus."

**LAU.- BIDEZKOA BALITZ, UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN ARAUDIA ALDATZEKO PROPOSAMENA. (HIRIGINTZA, OBRA ETA ETXEBIZITZA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2016KO AZAROAREN 23KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Hirigintza, Obra eta Etxebizitza Batzordearen irizpena, 2016ko azaroaren 23koa, eta honako hau dioena:

"Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia aldatzeko espedientea ikusita.

SQ-2D (1) taldearen aldeko botoaz eta EAJ/PNV (2), Bildu (2), PSE-EE (1) eta PP (1) Udal ordezkarien abstentzioaz, honako proposamen hau luzatzen dio Osoko Bilkurari

ERABAKIA:

LEHENA.- Udal Plangintzako Aholku Kontseiluaren Araudiaren aldaketak hasierako onespena ematea.

BIGARRENA.- Jendaurrean erakutsiko da eta entzunaldia ere egingo da interesatuekin, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar (30) egunez jarriko den iragarkiaren bidez, halaxe ezartzen baitu toki araubidea arautzen duten oinarrien 7/1985 Legearen 49. artikuluak erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

HIRUGARRENA.- Oharrak ebatzi ondoren, baldin eta baleude, behin betiko onarpen akordioa hartuko da eta testu osoa argitaratuko da, betiere, gorago aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Ordenatzaren hasierako onarpenari erreklazmaziorik aurkeztu ezean jendaurreko epe barruan, behin behineko akordioa behin betiko bilatuko da.

Gorporazioak, hala era, egoki deritzona erabakiko du."

**CUATRO.- APROBACIÓN INICIAL, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO, OBRAS Y VIVIENDA DE 23 DE NOVIEMBRE DE 2016).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Vivienda en sesión de 23 de Noviembre de 2016, del tenor literal siguiente:

"Visto el expediente incoado para la modificación del reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento municipal.

Con el voto favorable del representante de SQ-2D (1) y las abstenciones de los de EAJ/PNV (2), Bildu (2), PSE-EE (1) y, PP (1), se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente

ACUERDO:

PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación del reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento municipal.

SEGUNDO.- Someterlo a información pública y audiencia a los interesados, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, durante el plazo de treinta (30) días, según lo establecido en el Artº. 49 de la Ley 7/85, reguladora de las Bases del Régimen Local, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

TERCERO.- Una vez resueltas las reclamaciones, si las hubiere, se adoptará acuerdo de aprobación definitiva y se procederá a la publicación íntegra del texto, de conformidad con lo dispuesto en el Artº. 70.2 de la Ley 7/85, anteriormente mencionada.

En el supuesto de que no se presenten reclamaciones en el plazo de información pública, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.

La Corporación, no obstante, acordará lo que estime pertinente."

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Hirigintza, Obra eta Etxebizitza batzordeak, azaroaren 23ko bilkuran, Udal Plangintzako Aholku Batzordearen araudia aldatzeko proposamenari aldeko irizpena eman zion.

Laburbilduz, Udalbatzari proposatzen zaizkion aldaketak honako hauek dira:

1.- Indarrean dagoen araudi orokorrarekiko egokitzapena.

2.- Batzordearen eginkizunak zabaldu egingo dira, aztertu egingo baita antolamendu zehaztua (ordenación pormenorizada). Bestalde, parte-hartzeko ekimenak jasotzen dira araudian.

3.- Batzordekide kopurua osatzen da, eta barneratzen dira nekazal eta abeltzainen ordezkariak eta pertsona nagusien ordezkariak. Era berean, aldatu egiten da ordezkariak izendatzeko era, orain arteko formaltasuna baztertuz.

4.- Azkenik, barne erregimenari dagokionez, gutxieneko bilkura kopurua ezartzeaz gain, garatu egiten da erabakiak hartzeko erregimena.

Hasierako onespena Udalbatzak hartu behar du gehiengo soilez. Informazio publikoko aldia zabalduko da, gutxienez hogeita hamar egunetako epez interesatuek erreklamazioak eta egoki iruditzen zaizkien iradokizunak aurkez ditzaten. Erregelamenduari erreklamaziorik aurkeztuko ez balitzaio, behin-behineko onespena behin betikoa bihurtuko litzateke.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: 2007 amaiera eta 2008 hasiera gogorarazi nahi dut. Udal honetako osoko bilkuran onartu zen Udal Planeamenduaren Aholkularitza Batzordearen araudia. Alderdi Popularrak aurkako botoa eman zuen, eta dagokion osoko bilkuran gure Bozeramaileak egindako hitzaldian argudiatu zuen jarrera hori.

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: La Comisión de Urbanismo, Obras y Vivienda, en la reunión del 23 de noviembre, dictó a favor de la propuesta de modificación de la normativa del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal.

En resumen, he aquí las modificaciones propuestas al pleno:

1.- Adaptación según la normativa general vigente.

2.- Las funciones de la Comisión se extenderán, ya que se analizará la ordenación pormenorizada. Por otro lado, las iniciativas de participación están recogidas en la normativa.

3.- Se completa el número de los miembros de la comisión y se incluyen los representantes de los agricultores y ganadores y también los representantes de las personas mayores. Así mismo, se cambia el modo de nombrar a los representantes eliminando la formalidad que ha tenido hasta ahora.

4.- Por último, en lo que se refiere al régimen interno, además de establecer la cantidad mínima de reuniones, se desarrolla el régimen de la toma de decisiones.

La aprobación inicial la debe hacer el Pleno con mayoría simple. Se abrirá el plazo de información pública, con un mínimo de treinta días de plazo, para que los interesados puedan presentar las reclamaciones y sugerencias que consideren oportunas. Si no se presentara ninguna reclamación al reglamento, la aprobación provisional se convertiría en definitiva.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Me remonto a finales del 2007 y comienzos del 2008. Se aprobó por el pleno de este Ayuntamiento el reglamento del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal al que el Partido Popular votó en contra, y argumentó su postura en la intervención de nuestro Portavoz en el pleno correspondiente.

Orain, gatozen 2016ko ekitaldi honetara; urtean zehar araudi hori aldatzeko aukera informazio-batzorde ugaritan landu dugu. Gaur onartu edo baztertu behar dugun zirriborroak jasotzen dituen aldaketek ez gaituzte bere garaian Alderdi Popularrak babestutako edukira hurbiltzen, beraz, ez dugu ikusten arrazoirik gehiengoan ados ez gauden aldaketa batzuk onartzeko. Gure jarrera oraindik ere kontrakoa da, eta, ondorioz, gure botoa kontrakoa izango da.

Me sitúo ahora en el presente ejercicio 2016; a lo largo del año hemos tratado en diferentes comisiones informativas la posibilidad de modificar este reglamento. Las modificaciones que contiene el borrador que hoy tenemos que aprobar o rechazar no nos llevan a un acercamiento en su contenido que en su día defendió el Partido Popular, por lo tanto, no vemos motivos para aprobar unos cambios con los que mayoritariamente estamos en desacuerdo. Nuestra postura sigue siendo disconforme, y, en consecuencia, nuestro voto será en contra.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Pozten gara batzordean landu den araudia izateaz. Funtsean EH Bilduren proposamenak landu dira, horiek egon baitira batzordean, eta pozten gara proposamen horiek araudian sartzeaz eta hura aberasteaz.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Nos alegra que sea un reglamento que se haya trabajado en comisión. Fundamentalmente se han trabajado las propuestas de EH Bildu, que son las que ha habido en la comisión, y nos alegramos de que esas propuestas queden incorporadas y enriquezcan el reglamento.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Araudia dezente landu dugu batzordean, proposamen asko egin dira batez ere EH Bilduren ekimenez, buelta asko eman dizkiogu. Beharrezkoa zen; Udalaren eta eragile sozialen, enpresa-eragileen eta herritarren, oro har, artean parte hartzeko organoa berraktibatu behar zen, ia desagertuta baitzegoen. Gu beti egongo gara herritarren eta erakundeen arteko topaguneen alde.

Baina azken bileran atsekabetu egin ginen deialdiaren uneak murrizteko irizpena ematera gindoazenean. Gutxienez urtean bitan egiteko ildoan ari ginen lanean, eta azken unean behin bakarrik ezarri zen. Une gehiago sortzeko inertzia sortu behar dugula uste dugu, herritarrekin topaketarako eta parte hartzeko espazio gehiago, kasu honetan, hirigintzako egiturazko espazioak lantzeko.

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: El reglamento es algo que hemos trabajado bastante en comisión, se han hecho un montón de propuestas a iniciativa de EH Bildu sobretodo, le hemos dado muchas vueltas. Era algo necesario; había que reactivar un órgano de participación entre Ayuntamiento y agentes sociales, agentes empresariales, ciudadanía en general, que estaba prácticamente desaparecido. Nosotros siempre vamos a estar a favor de espacios de encuentro entre las instituciones y la ciudadanía.

Pero la última reunión nos dejó mal sabor de boca cuando fuimos a dictaminar el hecho de reducir los momentos de convocatoria. Se estaba trabajando la línea de hacer por lo menos dos veces al año, y a última hora se ha establecido solamente una vez. Creemos que tenemos que crear una inercia a generar más momentos, más espacios de participación y de encuentro con la ciudadanía para trabajar, en este caso, los espacios estructurales de urbanismo.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Euskal Herria Bildutik oso argi geneukan gaur egun indarrean zegoen Hirigintza Aholku batzordea berriztatu behar genuela; hasi ginen aztertzen zein izan den batzorde horren funtzioa azken zortzi urteetan, eta

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: En Euskal Herria Bildu teníamos muy claro que debíamos renovar el Consejo Asesor de Urbanismo existente. Comenzamos a analizar la función que dicho Consejo había tenido en los últimos ocho años y hemos visto que se reunió so-

ikusi dugu bakarrik behin batzartu zela bere garaian, eta gerora inoiz ez. Guk uste dugu gure etorkizuneko Durango edo gaur egungo Durango eraikitzeko hartzen diren erabakiak herritarrekin batera hartu behar direla derrigorrez, edo, gutxienez, kontraste bat eginez, eta horretarako, kontseilu hori tresna eraginkorra izan daiteke benetan parte-hartzailea izatea lortzen badugu. Gure ustez, hirigintza herrigintza bihurtu behar da, bulegoetatik kalera atera behar da. Eta kontseilu hau ez zen organo baliagarria hori egiteko, horregatik egin genituen sei proposamen zehatz.

Alde batetik, eskatzen genuen kontseilu hori ez batzea bakarrik plangintza estrukturala aztertzen denean; plangintza zehaztua aztertzen denean ere batu behar da. Eta onartu egin da.

Uste dugu hobeto jaso dela eragileen parte-hartzea. Momentu honetan, teknikariez eta politikoez gain, gazte elkarteek, merkatariek, auzo-elkarteek, feministek, sindikatuek, jubilatuek, eta elbarrituek ere, aukera izango dute hirigintza arloan erabakiak hartzen direnean euren iritzia emateko.

Onartzen dugu legez presidentzia alkateak eduki behar duela, baina eskatu genuen kontseiluko beste kideren batek aukera izatea delegazio hori hartzeko. Puntu horretan eztabaida desberdinak izan genituen, ea legalki posible den edo ez, baina uste dugu ez dagoela inolako arazorik ordezkari politiko batek kontseilu kide baten delegazio bat egiteko. Azkenean ez da horrela jaso.

Beste eztabaida bat ere izan dugu maiztasunaren inguruan. Ez dugu esaten hamabostero bildu behar garenik, baina uste dut garrantzitsua dela maiztasun bat jartzea; eskatu genuen sei hilero izatea eta horrela onartu zen, baina azken batzordean izan genuen PPren ekarpen bakarra, eta izan zen gure proposamena atzera botatzea eta sei hilabetean behin izan beharrean urtean behin izatea.

Badauzkagu estatutu berri batzuk, araudi berri bat, eta orain falta dena da martxan jartzea. Orain guztion eskuetan dago batzorde hau dinamizatzea eta eduki behar duen eraginkortasuna izatea.

lamente una vez en su día y no se ha vuelto a reunir. Nosotros creemos que las decisiones que se toman para construir el Durango del futuro o el de hoy, se deben tomar, necesariamente, junto con los ciudadanos o al menos, haciendo un contraste, y para ello, dicho Consejo puede ser un instrumento útil si conseguimos que realmente, sea participativo. En nuestra opinión, debemos cambiar la perspectiva y dar voz a la ciudadanía, salir de las oficinas a la calle. Y dicho Consejo no era una herramienta útil para ello y por ello, realizamos seis propuestas concretas.

Por un lado, solicitábamos que dicho Consejo no se reuniera solamente cuando se analiza el planeamiento estructural, sino también cuando se analiza el planeamiento pormenorizado. Y se ha aprobado.

Creemos que se recogerá mejor la participación de los agentes. En este momento, además de técnicos y políticos, también tendrán la oportunidad de aportar su opinión en las decisiones de urbanismo las asociaciones juveniles, comerciantes, asociaciones de barrios, feministas, sindicatos, jubilados y discapacitados.

Aceptamos que por ley, la Presidencia corresponde al alcalde, pero solicitamos que algún otro miembro del Consejo tuviera la oportunidad de asumir dicha delegación. Mantuvimos varios debates acerca de ese punto, sobre si legalmente era posible o no, pero creemos que no hay ningún problema para que un representante político realice una delegación de un miembro del Consejo. Al final, no se ha recogido así.

También hemos tenido otro debate en torno a la frecuencia. No estamos diciendo que debamos reunirnos cada quince días, pero creo que es importante establecer una frecuencia; solicitamos que fuera cada seis meses y así se aceptó, pero en la última sesión de la comisión tuvimos una única aportación del PP y fue que se rechazara nuestra propuesta y que las reuniones, en vez de realizarlas cada seis meses, se realizaran una vez al año.

Tenemos nuevos estatutos, una nueva normativa, y lo que nos falta es poner todo en marcha. Está en manos de todos dinamizar esta comisión y que tenga la eficiencia que debe tener.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Guk aldeko bozka emango diogu dokumentu honi. Egia da hainbat batzordetan hitz egin eta eztabaidatu dela honen inguruan, egia da baita ere ekarpenak egin izan direla. Ez dakit proposamena izan den ala ez, baina guk ez daukagu inolako arazorik maiztasuna sei hilekoa izatea. Dokumentu dinamiko bat da, martxan jartzen denean hobekuntzak egin ahal zaizkio, eta uste dugu tresna erabilgarria dela, bai parte-hartzearentzat, bai udalarentzat eta herriarentzat.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros votaremos a favor de este documento. Es verdad que se ha hablado y debatido sobre este tema en varias comisiones y también es verdad que se han realizado aportaciones. No sé si ha sido una propuesta o no, pero por nuestra parte no hay ningún problema para que la frecuencia sea de seis meses. Es un documento dinámico, se le pueden realizar mejoras una vez esté en marcha y creemos que es un instrumento útil, tanto para la participación, como para el ayuntamiento y el municipio.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Egin diren batzordeetan zehar Alderdi Popularrak ekarpen bakarra egin duela aipatu dute. Badirudi bere garaian onartu zen aldizkakotasuna ez dela aplikatu nahi eta, guk, noski, gehiengoz onartutako aldizkakotasun oro demokratikoki onartzen dugu. Argi dagoena da aurreko araudiak ez zuela gutxieneko aldizkakotasunik ezarrita, ez dakit zer oldarraldi duten 12 hilean behin ez egiteko, irizpena egindako unean gehiengoz onartutakoak izanik.

Bestalde, deigarria iruditu zaigu orain planteatzen diren aldaketa gehienak proposatu dituenak ez dituela botoarekin babestu, joan den astean osoko bilkurara ekartzeko irizpena eman zenean.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Se ha mencionado que a lo largo de las diferentes comisiones que se han ido haciendo el Partido Popular solo ha hecho una aportación. Parece ser que la periodicidad que se aprobó en su momento no se quiere aplicar y nosotros, desde luego, cualquier periodicidad que se apruebe por la mayoría, democráticamente las aceptamos. Lo que está claro es que el anterior reglamento no tenía una periodicidad mínima establecida, desconozco qué ímpetu tienen en que no se hagan cada 12 meses, habiendo sido aprobado por mayoría en el momento de dictaminar.

Por otro lado, nos ha llamado la atención que quien ha propuesto la mayoría de las modificaciones que ahora se plantean no las hayan defendido con su voto, cuando la semana pasada se dictaminaron para traerlas al pleno.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Guk emendakinak sartu genituen eta horietako bat, maiztasunarena hain zuzen ere, ez zen onartu, beraz; gustatuko litzaiguke gaurko honetan bozkatzea. Hau da, urtean behin izan beharrean sei hilero egitea, pentsatzen dugulako osoko bilkura aldiak sei hilabetekoak izaten direla, eta sei hilabete horietan kontseilua batzeko arrazoiren bat baldin badago araudian jasota dagoena, nahiko dela batzeko. Baina sesio-aldi horretan ez bada batu, ondo legokeela, gutxienez kontu emate bat egitea sei hilabete horietan eta hirigintza arloan egin diren gauzez, nolako erabakiak hartu diren azaltzeko eta iritziak jasotzeko.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Nosotros presentamos enmiendas y una de ellas, relacionada con la frecuencia, no se aprobó. Por lo tanto, nos gustaría someterla a votación en esta sesión. Es decir, realizar las reuniones cada seis meses en vez de cada año, porque pensamos que los periodos del pleno son semestrales y en esos seis meses, si existe alguna razón recogida en la normativa para que el consejo se reúna, es razón suficiente para reunirnos. Pero si el consejo no se reúne en ese periodo, creemos que estaría bien realizar, al menos, una rendición de cuentas sobre lo que se ha realizado en esos seis meses en materia de urbanismo, para explicar las decisiones que se han tomado, para recoger opiniones.

Beraz, maiztasunarena berriz bozkatzea eskatzen dugu; Eta, amaitzeko, Alderdi Popularra zoriondu nahi dut, eztabaida honetan behin baino ez duelako parte hartu eta, gainera, eskatu duelako herritarrei helarazten diogun informazioa sei hilean behin baino urtean behin egitea. Aportazio ikaragarria.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bozkatu egingo dugu. Maiztasunaren kontua emendakin moduan aurkeztua izan da, beraz, lehenengo emendakin hori bozkatu beharra dago. Aurrera eginez gero, barneratu egingo da irizpenean.

Emendakinaren bozketa:

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrako botoak: BAT, 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Irizpenaren bozketa:

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrako botoak: BAT, 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURARK, gehiengoa ren botoarekin, hauxe erabaki du:

Por lo tanto, solicitamos que se vote de nuevo el tema de la frecuencia; y, para acabar, felicitar al Partido Popular que su única participación en este debate haya sido que pasemos de dar cuenta a los ciudadanos cada doce meses en vez de cada seis. Una gran aportación.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Procedemos a la votación. El tema de la frecuencia ha sido presentado como enmienda, por lo que primero hay que votar dicha enmienda. Si sale adelante, se incluirá en el dictamen.

Votación de la enmienda:

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: UNO, 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

Votación del dictamen:

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: UNO, 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

**Lehena**.- Udal Plangintzako Aholku Kontseiluaren Araudiaren Aldaketari hasierako onespena ematea, kontseiluaren batzarren maiztasuna sei (6) hilabetekoa izango delarik.

**Primero**.- Aprobar inicialmente la Modificación del Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento municipal, quedando incluída la frecuencia de seis (6) meses para la realización de las reuniones del mismo.

**Bigarrena**.- Jendaurrean erakutsiko da eta entzunaldia ere egingo da interesatuekin, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar (30) egunez jarriko den iragarkiaren bidez, halaxe ezartzen baitu toki araubidea arautzen duten oinarrien 7/1985 Legearen 49. artikuluak erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

**Segundo**.- Someterlo a información pública y audiencia a los interesados, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, durante el plazo de treinta (30) días, según lo establecido en el Artº. 49 de la Ley 7/85, reguladora de las Bases del Régimen Local, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

**Hirugarrena**.- Oharrak ebatzi ondoren, baldin eta baleude, behin betiko onarpen akordioa hartuko da eta testu osoa argitaratuko da, betiere, gorago aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz.

**Tercero**.- Una vez resueltas las reclamaciones, si las hubiere, se adoptará acuerdo de aprobación definitiva y se procederá a la publicación íntegra del texto, de conformidad con lo dispuesto en el Artº. 70.2 de la Ley 7/85, anteriormente mencionada.

Ordenatzaren hasierako onarpenari erreklazmaziorik aurkeztu ezean jendaurreko epe barruan, behin behineko akordioa behin betiko bilatuko da.

En el supuesto de que no se presenten reclamaciones en el plazo de información pública, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.

**BOST.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, LEIOARAKO EHUREN A-3924 AUTOBUS LINEARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2016007990, 2016KO AZAROAREN 24KOA).**

**CINCO.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA A LA LÍNEA DE AUTOBUSES A-3924 A LA UPV DE LEIOA. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2016007990, DE 24 DE NOVIEMBRE DE 2016).**

Bildu Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, Leioarako ehuren A-3924 autobus lineari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2016007990, 2016ko azaroaren 24koa, eta honako hau dioena:

Dada cuenta de la Moción presentada por el Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, relativa a la línea de autobuses A-3924 a la UPV de Leioa, con Registro de Entrada nº 2016007990 de 24 de Noviembre de 2016, del tenor literal siguiente:

"*UPV/EHUko Leioako kanpusera doan autobusa (A3924) jendez gainezka joaten da askotan. Sarritan gertatzen da jende asko zutik joan behar izatea, 30-40 minutu irauten duen bidai osoan. Egoera hau batez ere 7:10 eta 8:10eko autobus zerbitzuetan sufritzen da ia egunero. Erabiltzaileek ke-*

"*El autobús que va al campus de Leioa de la UPV/EHU (A3924) suele ir lleno de gente. A menudo, muchos usuarios van de pie durante los 30-40 minutos que dura el trayecto, sobre todo en el servicio de 7:10 a 8:10. Los usuarios han presentado quejas y han solicitado que se re-*

*xak eta errefortzu gehiagoren beharra planteatu dituzte askotan, garraio duin bat bermatze aldera.*

*Autobusa orduko, gainera, ilarak ikus daitezke autobus geltoki inguruan. Baita ere jendea errepide erditik gurutzatzen, bigarren geralekua baita, herrietatik pasatzen diren autobusak hartzen diren lekua, zebrabide ondoan ez dagoena. Izan ere, aurreko mozio batean, Madalenako autobus geltokia hobetzeko planteatu genuen mozioan, inguru horretan beste zebrabide bat egitea ere onartu zen. Mozio horretan onartutako hobekuntza horien guztien berririk ez da jaso, ez Bizkaiko Aldunditik, ezta Durangoko Udaletik ere.*

*Hau honela, Durangoko Udaleko osoko bilkurak ondorengo erabakiak hartzen ditu:*

1. *Durangoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesiorako Sailari A3924 linean, ordutegi guztietan, jende guztia eserita joan ahal izateko behar beste errefortzu jartzea eskatzen dio, garraio duina bermatuz.*

2. *Durangoko Udalak Madalenako autobus geltokia hobetzeko (aterpeak kasu) hartutako konpromisoa berresten du, baita ere ahalik eta lasterren martxan jartzekoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesiorako Sailari beharrezkoak diren eskaerak bideratuz.*

3. *Durangoko Udalak Madalenako autobus geltokiaren oinezkoen erabilpenak eta beharrak aztertuko ditu eta beharrezkoak diren neurriak hartu: zebrabide gehiago, zebrabide luze bat....*

4. *Akordio hau Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesiorako Sailari helaraziko zaio*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-partzeak ematen dira:

*fuerce el servicio con el objeto de garantizar un transporte más digno.*

*Antes de subir al autobús se generan colas en las paradas. También se puede ver gente cruzando la carretera, puesto que es la segunda parada, el lugar donde se cogen los autobuses que pasan por los distintos municipios, y que no está a la par del paso cebra. En una moción presentada anteriormente, en la que solicitábamos el acondicionamiento de la parada de autobús de Magdalena, se acordó que en esa zona se estableciera otro paso de cebra. No obstante, no tenemos noticia ni por parte de la Diputación ni por la del Ayuntamiento en relación a las mejoras acordadas a través de dicha moción.*

*En consecuencia, el pleno municipal del Ayuntamiento de Durango acuerda:*

1. *Solicitar al Departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio de la Diputación Foral de Bizkaia que en la línea A3924, y en todos los horarios, establezca un refuerzo para que los usuarios del servicio de autobús viajen sentados con el objeto de garantizar un transporte digno.*

2. *El Ayuntamiento de Durango se ratifica en el compromiso adoptado en relación al acondicionamiento de la parada de Magdalena (cubierta incluida), y se compromete a su puesta en marcha lo antes posible, iniciando para ello los trámites necesarios ante el Departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio de la Diputación Foral de Bizkaia.*

3. *El Ayuntamiento de Durango analizará los usos y necesidades de los peatones en la parada de autobuses de Magdalena y adoptará las medidas necesarias: más pasos cebra, paso cebra más largo, etc.*

4. *Se dará cuenta de este acuerdo al Departamento de transportes, movilidad y cohesión del territorio de la Diputación Foral de Bizkaia*."

ABIERTO debate se producen las siguientes intervenciones:

* **Bravo Zubillaga jaunak (EH Bildu)**: Ez naiz mozioa bera irakurtzen hasiko, badaukazue eta denok. Beste barik, laburpen txiki eta labur bat egiten saiatuko naiz. Bi zatitan bereizi genezake gure mozioa:

Alde batetik, aurrez onartutako konpromisoak berretsi, eta autobus geltokiaren egoera hobetzea eskatzen dugu, aurrez hartutako konpromisoen artean baitzegoen Madalenako geltokian hobetze lanak egitea.

Durango 30.000 biztanle dituen eta eskualde burua den herri handi bat da. Horrez gain, EAE barruan kokapen estrategikoa du, hiru probintzien erdigunean kokatzen baita. Horrek ahalbidetzen dio hiru lurraldeekin komunikatuta egotea eta posible izatea autobus bidez hiru hiriburuetara joatea. Eta autobus horiek guztiak Madalenako autobus estaziotik irteten dira.

Beraz, zentzugabea eta ulertezina deritzogu, bus geltokia horrelako egoeran egotea, non ia ez dagoen aterperik ere ez. Horregatik, eta egoera hau aldatu asmoz, eskatzen dugu hobekuntzak martxan jartzeko, eta eskatzeko Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako Sailari beharrezkoak diren eskaerak bideratzea.

Puntu honen barruan baita ere, estazioaren beraren inguruak hobetzea eskatzen dugu. Mozioan adibide gisa jartzen dugu beharrezkoa dela beste zebra-bide bat egitea herrietatik pasatzen den autobusa geratzen den tokian, garajeko sarreraren ondoan. Puntu horretan autobus erabiltzaileek, zebra-biderik egon ez arren, bidetik pasatzen dira, eta horrenbestekoa da joan-etorria puntu horretan, errepideak banatzen dituen landare-hesia ez dagoela. Bide horiek, jendeak erosotasuna bilatzen eta naturaltasunez egiten dituen horiek, urbanismoan *lineas de deseo* gisa ezagutzen dira, eta erakusten dituzte urbanismoak, papereko planteamenduan, egin dituen akatsak.

Horien aurrean, bi bide daude; edo herritarren ohiturak kriminalizatu eta zigortu, edo ohitura horiek

* Concejal **Sr. Bravo Zubillaga (EH Bildu)**: No leeré la moción, ya que la tenéis todos. Sin más, realizaré un pequeño resumen y procuraré ser breve. Podríamos dividir nuestra moción en dos partes:

Por un lado, ratificamos los compromisos adoptados y solicitamos que se mejore el estado de la estación de autobuses, ya que los trabajos de mejora de la estación de Magdalena se encontraban entre los compromisos adquiridos anteriormente.

Durango es un municipio grande, cabeza de comarca, de 300.000 habitantes. Además de ello, tiene una situación estratégica en la EAE, ya que se encuentra en el centro de las tres provincias. Ello le permite estar comunicado con los tres territorios y que se pueda llegar a las tres capitales en autobús. Y todos esos autobuses parten desde la estación de autobuses de Magdalena.

Por ello, consideramos irrazonable e incomprensible que la estación de autobús se encuentre en la situación actual, sin apenas tener un lugar cubierto. Por lo tanto, y con el objetivo de cambiar esta situación, pedimos que se pongan en marcha los trabajos de mejora y que se solicite al Departamento de Transporte, Movilidad y Cohesión Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia que tramite las solicitudes necesarias.

Siguiendo con este punto, también solicitamos mejorar los entornos de la propia estación. En la moción, mencionamos como ejemplo que consideramos necesario colocar otro paso de cebra en el lugar donde para el autobús que va por los pueblos, junto a la entrada del garaje. En ese punto, los usuarios de autobús, cruzan el camino aunque no haya un paso de cebra y el tránsito de ese punto es tal que no existe la barrera vegetal que divide las carreteras. Dichos caminos, los recorridos por la gente naturalmente buscando la comodidad, se conocen en urbanismo como líneas de deseo, y muestra los fallos que ha cometido el urbanismo en el planteamiento sobre papel.

Vista la situación, tenemos dos caminos: criminalizar y castigar las costumbres de los ciudadanos o comprender dichas costumbres, facilitarlas

ulertu, erraztu eta bide eman. Guk bigarrenaren alde egiten dugu.

Eta beste aldetik, A3924 autobus linea hobetzeko eskatzen dugu. Urte luzez dagoen arazo bat da Ermutik (Eibar) irten eta Leioako Unibertsitatera doan autobusarena. Ni neu ere 6 urtez ibili naiz egunero autobus hau erabiltzen, eta larregitan joan behar izan naiz zutik. Eta arazoa, mozioan diogun bezala, batez ere 7:10 eta 8:10etako busetan dago.

Kontutan eduki behar dugu autobus horrek Eibar, Ermua, Mallabia, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango eta Iurretako herrietako ikasle eta irakasleak biltzen dituela. Gainera, bus horrek Ondarroatik datorren autobusarekin ere badu konexioa, bertako ikasle eta irakasleak ere hartuz. Horregatik guztiagatik, jende hori guztia batzen delako, egoten dira arazoak bus honekin.

Zerbitzu publiko baten eskaintza ezin da hori izan. Garraio publikoa erabili dadin nahi badugu, eskaintza hobetu beharra dago; zerbitzu eta garraio publiko duin batek baliabide eta eskaintza duin bat izan behar duelako.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: Gure ustez argi dago esfortzuak falta direla. Autobusa iritsi aurretik geltokian ilarak egoteari dagokionez, gure ustez beti izango da horrela; zutik joaten diren pertsonei dagokienez, uste dugu Bizkaibusek errepide bidezko bidaiarien garraioari buruzko indarrean den araudia betetzen duela. Zebrabideei eta geltokiei dagokienez, argi dago Udalaren eskumena direla eta hobe daitezkeela uste dugu.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Proposamena egin duen alderdiari galdetu nahiko nioke puntuz puntu botoa emateko aukera izango ote den. Gertatzen zaiguna da puntu batzuekin ados gaudela, baina beste batzuekin ez, edo ez dira gure eskumenekoak.

Gobernu talde gisa Vicente Reyes garraioen foru-diputatuarekin izan ditugun bileretan, konpromisoa hartu du, hilabeteko epean, Madalena geltokian

y darles paso. Nosotros abogamos por la segunda opción.

Hay otro tema; poco a poco hemos ido avanzando en la red ciclable, pero nos falta cierta cultura de convivencia entre los peatones, los ciclistas y las motos y coches; tenemos un poco de confusión de cómo se utiliza y se están creando ciertos conflictos y quizás tenemos que hacer una campaña informativa, divulgativa y educativa de cómo se utiliza el carril bici.

Creo que también tenemos que apostar a medio/largo plazo por la rotonda Urki-Hegoalde para que nos desatasque un poco la cantidad de tráfico que estamos soportando; en la medida que quitemos tanto tráfico, seguramente tendremos una ciudad más amigable, más sostenible y más peatonal.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nos unimos a la moción alternativa. Leeré los tres puntos:

- Limitar la circulación a 30 kilómetros por hora en todo el municipio y en todo momento.
- Mejorar la iluminación de la avenida de Landako.
- Poner en marcha una campaña de seguridad vial dirigida a los ciclistas.

Nos parece curioso que algunos utilicen distintas herramientas y medidas para medir las cosas. Cuando son ellos los que presentan las cosas, no tienen ningún problema para cambiar los puntos o el texto a última hora o incluso en el pleno, pero a otros se nos echa en cara que hacemos las cosas en el último momento; creo que todos tenemos los mismos derechos y las mismas herramientas para llevar las cosas adelante. Por lo tanto, lo que sirve para vosotros también sirve para el resto, y si no os gusta, esto es la democracia. Bienvenidos.

Y solamente recordar que este tema está en el pleno, pero que no lo ha traído PNV, sino otro partido político. Nosotros no tenemos ningún problema si todos los temas son tratados en la comisión; así, evitaríamos todas estas mociones.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Alde batetik, hemen esan da harrapaketak beste leku batzuetan ere gertatzen direla, "en otros sitios los atropellos son más"; ematen du hemen gertatzen dena dela "Mal de muchos consuelo de tontos". Horrelako zerbait planteatzen ari da PPko bozeramalea; gero esango du berak ez duela hori esan, baina hori ematen du.

Kezkagarria da gertatzen ari dena, eta kezka herritarren artean zabaltzen ari da; istripu bakarra gertatuta ere, kezkagarria da. Helburua ez da izan behar Bizkaia mailan baino harrapaketa gutxiago izatea; helburua izan behar da istripu bat ere ez gertatzea.

Planteamendua ekarri dugu, sakon aztertzeko; hau da, mugikortasunaren inguruko txosten bat eskatu, Udaltzaingoari beste txosten bat eskatu, dagokion batzordera eraman, eta hemendik aurrera, neurriak hartu beharko dira. Hau da, gogoeta, hausnarketa eta neurriak, hori da sekuentzia logikoena; lehenengo gogoeta egin, eta gero neurriak hartu. Eta zuek egin duzuena da lehenengo neurriak ekarri, gainera mozioa aurkeztu dugulako. Neurriak ondo dauden edo ez begiratu beharko genuke, baina guk proposatu duguna da lehenengo aztertzea zergatik gertatzen ari den gertatzen ari dena, hausnartzea eta gero neurriak hartzea.

Hemen hiru neurri agertzen dira:

- Landako Etorbidean argitasuna hobetzea. - Zergatik bakarrik Landakon?
- Zirkulazioa 30 Km/h-ra mugatzea uneoro eta herri osoan. -Leku askotan badago.
- Txirrindulariengan oinarritutako eta haiei bideratutako bideko hezkuntza-kanpaina berria martxan jartzea.

Baina txirrindulariak izan dira harrapaketak egin dituztenak? Bat bakarrik, besteak kotxeak izan dira.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Por un lado, se ha mencionado aquí que los atropellos también suceden en otros sitios, se ha dicho que "en otros sitios los atropellos son más"; parece que lo está ocurriendo aquí es "mal de muchos consuelo de tontos". El representante del PP está planteando algo así, y luego dirá que él no ha dicho eso, pero es lo que parece.

Lo que está sucediendo es preocupante y la preocupación se está extendiendo entre la ciudadanía; si tan solo hubiera ocurrido un accidente, también sería preocupante. El objetivo no debe ser que sucedan menos atropellos que a nivel provincial; el objetivo debe ser que no ocurra un solo accidente.

Hemos presentado un planteamiento, para que el tema sea analizado en profundidad; es decir, solicitar un informe sobre la movilidad, solicitar otro informe a la policía municipal, presentarlos en la comisión correspondiente, y a partir de ahí, habrá que tomar medidas. Es decir, reflexión y medidas, ésa es la secuencia más lógica; realizar, primero, la reflexión, y después, tomar medidas. Y lo que ustedes han hecho ha sido, primero, traer las medidas, y además, porque hemos presentado la moción. Deberíamos analizar si las medidas están bien o no, pero nuestra propuesta es analizar, primero, por qué está sucediendo esto, para después reflexionar y adoptar medidas.

Se presentan tres medidas:

- Mejorar la iluminación en Landako Etorbidea. - ¿Por qué solamente en Landako?.
- Limitar la circulación a 30 Km/h en todo momento y en toda la localidad. - Esta medida ya existe en muchos sitios.
- Poner en marcha una nueva campaña de educación vial centrada y dirigida a los ciclistas.

¿Pero han sido los ciclistas los autores de los atropellos? Solamente uno, el resto han sido atropellos realizados por coches.

Hartu behar diren neurrietako bat jendeak erabiltzen dituen bideak bultzatzea eta babestea da, hau da udal batek zaindu behar du jendeak egiten duen urbanismoa. Hartu behar diren beste neurri batzuk heziketari lotutakoak izan behar dira.

Proposamen hauek ondo daude batzorde batera eramateko eta eztabaidatzeko, eta ez azkeneko momentuan -eta guk mozio bat aurkeztu dugulako- aurkezteko prentsaurreko batean eta gero ekartzeko osoko bilkura batera. Arazoa oso serioa da.

* Garate Mintegui jaunak (PP): Alderdi Popularreko ordezkaria aipatzen dugunean uste dut zalantzarik ez dagoela ni naizela. Argi eta garbi esan dut, bai, beste lekuetan harrapatzeak gertatzen direla esan dut, egia da; Bizkaiko udalerrietako batez besteko datua ekarri dut, baina zuk, nire hitzak desitxuratuz, Durangoko harrapatzeak ez zaizkidala axola erantzun duzu. Bat bakarra izanda ere, istripu guztiak axola zaizkigu.

Denboraz ondo nabilela uste dudanez, errepikatu egingo dut, ea ulertzen zaidan. Denok nahi dugu ahalik eta segurtasun gehien eta gertatutako harrapatze bakoitzean gerta litezkeen gorabeherak aztertzea nahi dugu, berriz gerta ez daitezen. Eta hori bilatzen dugu harrapatzeak asko direnean eta gutxi direnean.

Udalaren eta herritar guztien lana da haietako bakoitza saihesten saiatzea.

* 1. Alkate Ordea Rios Ramos PSE-EE (PSOE): Alde batetik esaten duzue ondo iruditzen zaizkizuela planteatu ditugun neurriak. Aurkeztu duzuen testuan bertan neurriak eskatzen dituzue txostenak izan ondoren. Alde batetik, kontratatu den enpresa bateko mugikortasun-txostena dugu, eta bestetik, Udaltzaingoaren txostena dugu. Are gehiago, txosten horiek harrapatzeen arrazoiak ematen dizkigute, eta horren ondorioz, irtenbideak planteatzen ditugu. Arrazoiak honako hauek dira: alkoholaren eragina, eguzkiagatik itsutzea, eta hamabi harrapatze gidariak arreta galdu duelako gertatu dira.

Una de las medidas a adoptar es promover y proteger los caminos que utiliza la gente; es decir, un ayuntamiento debe cuidar el urbanismo que realiza la gente. Otras medidas que se deberían tomar son las relacionadas a la educación.

Estas propuestas están bien para presentarlas y debatirlas en una comisión, y no para presentarlas en una rueda de prensa en el último momento –y porque nosotros hemos presentado una moción– y luego traerlas a un pleno. El problema es muy serio.

* Concejal Sr. Garate Mintegui (PP): Creo que cuando nos referimos al representante del Partido Popular no cabe ninguna duda es que he tenido que ser yo. Lo he dicho alto y claro, sí, he dicho que se producen atropellos en otros lugares, es cierto; he aportado el dato de la media de los municipios de Bizkaia, pero usted me responde, tergiversando mis palabras, que no me importan los atropellos de Durango. Aún siendo solo uno, nos importan todos los accidentes.

Como creo que voy bien en tiempo, voy a repetir para ver si se me entiende: Todos buscamos la máxima seguridad posible y queremos que se analicen las circunstancias que han podido incidir en cada uno de los atropellos acontecidos para tratar de evitar que se vuelvan a producir. Y esto lo buscamos cuando los atropellos son muchos y cuando son pocos.

Es labor del ayuntamiento y de todos los ciudadanos tratar de evitar todos y cada uno de ellos.

* 1ª Tnte. de Alcalde Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE): Por un lado dicen que no les parece bien las medidas que hemos planteado. En el mismo texto que ustedes presentan piden medidas después de tener informes. Tenemos informes, por un lado, el informe de movilidad de una empresa que se ha contratado, y, por otro lado, tenemos un informe de la Policía Municipal. Es más, esos informes nos dan como resultado los motivos de los atropellos y, a raíz de ello, planteamos unas soluciones. Los motivos son influencia del alcohol, deslumbramiento del sol, y doce atropellos han sido por distracción de los conductores.

Uste dut argia dela, istripuen % 70 baino gehiago arreta galdu izanagatik gertatu dira. Neurri horiek ez daudela sobera uste dugu, baina ez dezagun demagogiarik egin ez dena esanez, emaitzak hor baititugu, eta oso argiak dira.

Creo que es claro, más del 70% de los accidentes han sido por distracciones. Sí creemos que estas medidas no están de más, pero no hagamos demagogia diciendo lo que no es, porque los resultados los tenemos y son bien claros.

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Berriz ere gaira etorrita, desbideratzeko interesa dagoenez, mugikortasunera eta segurtasunera itzuli nahi dut. Nik ekarri diren txostenak mahai gainean jarriko nituzke eta mahaia irekiko nuke, ez klase politikoari soilik, baizik eta herritarrei; izan ere, ekarpena egin dezakete batzuek. Orain gutxi, Alde Zaharreko bizilagunen DAZ elkarteak gai horren inguruko ekarpenak egin ditu, eta ekarpen horiek sartuko nituzke epe labur, ertain eta luzean gaia konpontzeko.

* Concejal **Sr. Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Centrándonos otra vez en el tema, ya que hay interés en desviar, quiero volver a la movilidad y a la seguridad. Yo los informes que se han aportado los pondría sobre la mesa y abriría esa mesa, no solo a la clase política, sino a la ciudadanía, porque hay gente que pude aportar. Recientemente la asociación de vecinos del Casco Viejo DAZ también ha hecho una serie de aportaciones en lo referente a este tema, e incluiría esas aportaciones para atajar este tema a corto, medio y largo plazo.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Ez daukagu inolako arazorik 3. puntuan segurtasuneko kanpaina guztiontzat martxan jartzeko, bai oinezkoentzat, bai gidarientzat, eta horrekin zuen aldeko bozka izaten badugu, ba primeran.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: No tenemos ningún problema para poner en marcha la campaña de seguridad para todos en el punto 3, tanto para los peatones, como para los conductores, y si para ello contamos con su voto, pues genial.

Beste alde batetik, esan behar dugu ondo dagoela esatea ekarpen edo proposamen hauek batzordera eramatea zela egokiena gaia bertan sakon lantzeko, hori baita foroa gaiak sakon lantzeko eta ez osoko bilkura. Arrazoia daukazue, beraz, egin dezagun hori gai guztiekin; ez soilik EH Bilduri interesatzen zaizkion gaiekin.

Por otra parte, debemos decir que está bien decir que lo mejor hubiera sido llevar estas aportaciones o propuestas a la comisión para allí poder tratar el tema en profundidad, ya que ése es el foro para tratar los temas en profundidad y no el pleno. Tienen razón, por lo tanto hagamos eso con todos los temas; no solamente con los temas que interesan a EH Bildu.

Guk ez daukagu inolako arazorik gure mozioa atzera botatzeko zuena ere atzera botatzen baduzue, eta gaia joan dadila dagokion batzordera.

Nosotros no tenemos ningún problema en retirar nuestra moción si ustedes hacen lo mismo con la suya, y para que el tema sea remitido a la comisión correspondiente.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Proposamenaren inguruan: Ez dugu ezer neurri horien kontra, baina ez dugu ulertzen nondik atera diren. "Landako etorbidean argitasuna hobetzea" gogoetaren ondoren datoz neurriak. Baina zergatik Landakon bakarrik? Txosten batek dio istripu gehienak gidariek arreta galdu izanaren ondoriozkoak direla, eta hirugarren neurria txirrindularientzako bideko kanpaina da.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Acerca de la propuesta: No tenemos nada contra esas medidas, lo que pasa es que no entendemos de dónde salen. Las medidas vienen después de la reflexión; "mejorar la iluminación en la avenida de Landako" ¿por qué solo en Landako? Hay un informe que dice que la mayoría de las causas de los accidentes son las distracciones al volante de los conductores, y la tercera medida es una campaña vial para los ciclistas.

Ez zait oso serioa iruditzen, badirudi prentsaurrekoa baino ordu erdi lehenago inprobisatu ditugula neurriak. Hori da gure zalantza eta guk proposatzen duguna da seriotasunez egitea; hau da, txostenak eskatu, txostenak eztabaidatu dagokien batzordean, bulego teknikoarekin kontrastatu eta gero neurriak hartu.

No parece muy serio, parece que hemos improvisado las medidas media hora antes de la rueda de prensa. Ésa es nuestra duda y lo que proponemos es tratarlo con seriedad; es decir, solicitar los informes, debatir sobre los informes en las correspondientes comisiones, contrastar con la oficina técnica y después, adoptar medidas.

Izan daitezke hauek edo beste batzuk, baina arazoa serioa da eta konponbidea ere serio izan behar da. Ez dago mozioa zertan erretiratu behar, bertan esaten dena da batzordera eraman behar dela gaia eta batzordean landu, hau da, datuak jaso, eztabaidatu, landu eta neurriak atera hortik. Gure helburua ez da beste leku batzuetan baino istripu gutxiago izatea Durangon. baizik eta helburua, epe luzera, izan behar da zero istripu egotea Durangon.

Pueden ser esta u otras, pero el problema es serio y la solución también debe ser seria. No hay por qué retirar la moción; lo que dice la moción es que el tema debe ser remitido a la comisión y tratarlo allí; es decir, recabar datos, debatir, tratar y pensar en medidas. Nuestro objetivo no es que en Durango ocurran menos accidentes que en otros sitios, sino que el objetivo es que, a largo plazo, en Durango tengamos cero accidentes.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Bozkatu egingo dugu. Bi mozio daudenez, lehenengo ordezko mozioa bozkatuko dugu eta gero jatorrizkoa.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Procedemos a la votación. Al tener dos mociones, primero votaremos la moción alternativa y después la original.

Ordezko mozioa, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra Taldeek aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

Moción alternativa presentada por los Grupos Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra:

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

Jatorrizko mozioa Euskal Herria Bildu eta Herriaren Eskubidea Taldeek aurkeztutakoa:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Moción original presentada por los Grupos Euskal Herria Bildu y Herriaren Eskubidea:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Berriz bozkatu behar dugu.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Tenemos que volver a votar.

Ordezko mozioa, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra Taldeek aurkeztutakoa:

Moción alternativa presentada por los Grupos Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

<u>Jatorrizko mozioa Euskal Herria Bildu eta Herriaren Eskubidea Taldeek aurkeztutakoa</u>:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin eta Alkate andreak kalitatezko botoa erabiliz, **ONARTU EGIN DU Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerrak** aurketuriko **ordezko mozioaren** testua.

**ZAZPI.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDEAREN MOZIOA, ONDASUN HIGIEZINEN ZERGARI BURUZKOA. (SARRERA ERREGISTROA 2016007992, 2016KO AZAROAREN 24KOA).**

Euskal Herria Bildu Udal Taldeko Bozeramaileak izenpeturiko mozioa, Ondasun Higiezinen Zergari buruzkoa. Sarrera Erregistroa: 2016007992, 2016ko azaroaren 24koa, eta honako hau dioena:

"*Berrogei urte geroago Bizkaiko Foru Aldundiak katastro-balioak errebisatzea erabaki du. Behar-beharrezkoa zen, egia esan. Baina egin duten errebisioa astakeria hutsa izan da Durangori dagokionez. Katastro-balioak Ondasun Higiezinen Zergaren oinarri dira, eta zerga hau garrantzitsuenetako bat da, herritar ia guztiek ukitzen dituelako eta zenbateko handia suposatzen duelako. Baina kalkuluak egiterako orduan akats ikaragarriak egin dira.*

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

<u>Moción original presentada por los Grupos Euskal Herria Bildu y Herriaren Eskubidea</u>:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.

En su vista,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría y haciendo la Alcaldesa uso del voto de calidad, **APRUEBA** el texto de la **Moción alternativa** presentada por el **Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra**, anteriormente transcrita.

**SIETE.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EUSKAL HERRIA BILDU, RELATIVA AL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES. (REGISTRO DE ENTRADA Nº 2016007992, DE 24 DE NOVIEMBRE DE 2016).**

Dada cuenta de la Moción presentada por el Grupo Municipal Euskal Herria Bildu, relativa al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, con Registro de Entrada nº 2016007992, de 24 de Noviembre de 2016, del tenor literal siguiente:

"*Cuarenta años después, la Diputación Foral de Bizkaia ha decidido revisar los valores catastrales. Una revisión, que a todas luces era necesaria. Ahora bien, la forma de realizarla ha sido un despropósito en lo que al municipio de Durango se refiere. Nos encontramos ante unos valores catastrales que son la base del Impuesto de Bienes Inmuebles, uno de los impuestos más importantes, bien porque afecta a la práctica totalidad de la ciudadanía, bien por el montante que supone. Y en el cálculo de estos valores nos encontramos con errores de bulto.*

*Holaxe, edozelan eginiko balorazioen ondorioz, buruhauste franko eragin zaizkie durangar askori. Izan ere, katastro-balio berri horiek OHZ zerga berriaren oinarri bilakatu dira. Diputazioak kalkulu berriak egin ditu, eta halaxe jakinarazi die durangarrei: kasu batzuetan neurriz kanpoko igoera justifika ezinak eman dira. Katastro-balioak gaizki kalkulatuta egoteaz gain, Durangoko Udalak 140.000 euroko katastro-balioa ezarri zuen lehenengo atalaserako, eta honek eragina du tipologia ezberdineko 1.000 etxebizitzetan.*

*De esta manera, unas valoraciones hechas sin pies ni cabeza, han provocado grandes quebraderos de cabeza a muchos vecinos y vecinas de Durango. Ya que esos valores catastrales nuevos, han sido la base de un nuevo impuesto del IBI, cuyo cálculo está notificando la Diputación a la ciudadanía de Durango, con incrementos desproporcionados e injustificados en algunos casos. A unos valores mal calculados, hay que sumarle el hecho de que el primer umbral que el ayuntamiento estableció en Durango para poner un tipo agravado, fue de 140.000 € de valor catastral, lo que afectaba a cerca de 1.000 viviendas de diversa tipología.*

*Balorazio oker hauen jatorrian bi aspektu gailentzen dira: Diputazioak eginiko zona-banatzea eta zona bakoitzari esleitutako €/m$^2$-ko balioa. Izan ere, zona-banatze hau eta esleitutako m$^2$-ko balioek datu harrigarriak uzten dizkigute Durangon. Erdiguneko m$^2$-k, Ezkurdin (zerbitzu publiko eta pribatu gehien dituen gunea, hala nola, osasun zentroa, ikastetxeak, epaitegia, udaletxea, bankuak, e.a.) 749,78 €/m$^2$-ko balorazioa dauka, baina zerbitzu gabezia handia duten San Fausto edo Aramotz bezalako guneek 869,81 €/m$^2$-ko balorazioa daukate. Balorazio hau, duda barik, gaizki eginda dago, eta ez du inongo justifikaziorik. Baina gertaera hau harrigarria bada ere, are harrigarriagoa da Udalak inongo alegaziorik egin ez izana lurzoruen balorazio hauen aurrean eta, azken baten, ontzat ematea.*

*El origen de las erróneas valoraciones está en la zonificación que realizó la Diputación y el valor €/m$^2$ que adjudicó a cada zona. Esa zonificación y los valores por m$^2$ adjudicados, nos dejan datos verdaderamente sorprendentes en Durango. De esta manera, el m$^2$ en la zona céntrica por excelencia de Durango, Ezkurdi (zona que cuenta con la mayoría de los servicios públicos y privados, tales como centro de salud, colegios, juzgado, ayuntamiento, bancos etc, en un radio cercano), se valora en 749, 78 €/m$^2$, mientras que zonas con una carencia importante de servicios, como San Fausto o Aramotz, se valoran en 869,81 €/m$^2$. Una valoración a todas luces errónea y que no tiene justificación alguna. Pero si esto resulta sorprendente, más aún resulta el hecho que esa valoración de los valores del suelo no contara con ninguna alegación por parte del ayuntamiento y se diera por buena.*

*Akats hauei gehitu behar zaie Foru Arauak ez duela baimentzen higiezinei ezarri beharreko tasak bi tipo ezberdinetan baino gehiagotan banatzerik (tasa hau era progresiboan aplikatu dadin); bestalde, higiezinen zenbait balorazioetan akatsak agertzen dira m$^2$ak kontabilitzatzeko orduan eta akatsak agertzen dira, baita ere, etxebizitzen gune bizigarrietan, eta beste hainbatetan. Eta akats hauetatik dator durangarren haserrea.*

*Este cúmulo de errores, unido a la imposibilidad que la propia norma foral contiene de segregar en más de 2 tipos diferentes los gravámenes a imponer a los inmuebles (para que este se aplique de manera progresiva), y a que muchas valoraciones de inmuebles contienen errores a la hora de contabilizar los m$^2$, las zonas habitables de las viviendas, etc., provocan que el malestar de la ciudadanía de Durango en este tema sea clara y notoria.*

*Katastroaren balorazioak eragindako arazoei irtenbidea emateko eta OHZren araudia aldatzeko, Durangoko Udalak hauxe onartu du:*

*Para dar solución en parte a los problemas generados con la valoración catastral y la modificación de la normativa del IBI, el ayuntamiento de Durango acuerda:*

1. *Azkeneko osoko bilkuran adostutakoa betetzea eta, lehenbailehen, behar besteko pertsonala jartzea durangarren esku ondasun higiezinen*

1. *Cumplir con lo acordado en el último pleno y poner lo antes posible a disposición de la ciudadanía de Durango el personal que fuera*

*balorazioaren inguruan izan daitezkeen zalantzak argitzeko.*

2. *Udalak gai honen inguruan duen dokumentazioa guztia herritarren esku jarriko du, hau da, ondasun higiezinen balorazioaren inguruan alegazioak aurkezteko behar den dokumentazio guztia. Dokumentazioa emateak gasturen bat suposatuko baluke indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera, Udalak bere gain hartuko du kostua, egoera berezi eta ezohiko baten aurren gaudelako, beti ere legearekin bat etorriz.*

3. *Bizkaiko Foru Aldundiari eskatuko zaio foru araua aldatu dezala zergaren aplikazio progresiboa ahalbidetzeko. Horretarako, foru araua-ren 8.3 artikulua aldatzea eskatuko zaio, bi tipo ezberdin baino gehiago jarriaz, gutxienez, 3 atalase-maila ezberdin aintzat hartuta.*

4. *Ondasun higiezinak tasatzen esperientzia egiaztatua duten 2 enpresari eskatuko zaie, astebeteko epean, Diputazioak bere zona-banatzean zehazturiko gune ekonomiko homogeneoetan lurzoruaren eragin-balioen gaineko txosten eguneratua egin dezatela. Balorazio hauek Diputazioak egindakoekin kontrastatuko dira eta, hala balegokio, Diputazioak Durangoko guneei esleitutako balioak aldatu ditzala eskatzeko erabiliko dira. Txostena jendaurrean erakutsiko da herritarrek, hala irizten badiote, euren alegazio indibidualetan erabili ditzaten*."

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-partzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Esaldi batekin azaldu beharko bagenu IBI zergarekin gertatu zaiguna, esango genuke, "a zelako marroia utzi digun Bizkaiko Foru Aldundiak udalerriei". Egia da, eta onartu behar dugu gu ere ez garela oso fin ibili tipoak ezartzerako orduan; bi ordenantza egin ditugu aurten, eta ziur behin alegazioen epea bukatzen denean, moldatu beharko dugula udal ordenantza tipoak ezartzerako orduan.

*necesario para ayudarle a aclarar las dudas que puedan tener en relación a la valoración de su inmueble.*

2. *Poner a disposición de la ciudadanía toda la documentación que esté en posesión del ayuntamiento y que sea necesaria para la presentación de alegaciones en relación a la valoración de los bienes inmuebles. Si facilitar esa documentación supusiera coste alguno en base a las ordenanzas fiscales en vigor, el ayuntamiento correrá con el coste al encontrarnos ante una situación verdaderamente singular y extraordinaria, siempre que sea acorde con la legalidad.*

3. *Solicitar a la Diputación Foral de Bizkaia que modifique la norma foral en el sentido de permitir una aplicación más progresiva del mismo. Variando para ello el artículo 8.3 de la norma foral y estableciendo más de dos tipos diferentes en base, como mínimo, a 3 umbrales de valor diferentes.*

4. *Solicitar a 2 empresas con contrastada experiencia en la tasación de bienes inmuebles, para que en el plazo de una semana, realicen, un informe actualizado relativo a los valores de repercusión del suelo en las zonas económicas homogéneas concretadas por la Diputación en su zonificación. Esas valoraciones se contrastarán con las realizadas por la Diputación y se utilizarán si fuera pertinente para reclamar a la Diputación un cambio en los valores otorgados a las zonas de Durango. El informe se hará público para que la ciudadanía lo pueda utilizar en sus alegaciones individuales si fuera pertinente*."

ABIERTO debate se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Si tuviéramos que explicar en una frase lo que nos ha sucedido con el impuesto IBI, diríamos, "vaya marrón nos ha dejado la Diputación Foral de Bizkaia a los municipios". Es verdad y tenemos que admitir que nosotros tampoco hemos estado acertados a la hora de fijar los tipos; este año hemos elaborado dos ordenanzas y seguro que una vez finalice el plazo de alegaciones, tendremos que adaptar la ordenanza municipal para establecer los tipos.

Berrogei urte ondoren, aldundiak erabaki du balore katastralak berriztatzea, eta, hauek berriztatzen badira, higiezinen balore katastralak aldatzen badira, hiri zerga zeharo aldatzen da. Beraz, uste dugu, berrogei urte ondoren erabaki hori hartzen badu aldundiak, gutxienez ondo legokeela azaltzea zelan egingo duen aldaketa hori, nolako irizpideak erabiliko dituen aldaketa horiek egiteko, eta, posible bada, herritarrei ondo azaltzea zelan egingo duen aldaketa hori. Eta hori ez da gertatu; bulego bat jarri zuten Pinondo Etxean, eta bulego horretan esaten zutena zen "zure arazoaren errua Durangoko Udalak dauka, beraz joan zaitez udaletxera kexa jartzera".

Azalpenik ez da egon, baina denok ikasi behar izan dugu zelan ateratzen diren balore katastralak, eta oinarrian bi balore daudela; lurzoruaren balorea eta eraikinaren balorea. Hori, etxebizitzak baloratzerako orduan. Horretarako Aldundiak asmatu zuen zonifikazio bat Durangon, eta norbaitek ikusi baditu balore horiek, oso argi ikusiko du jarri dituenak ez duela Durangoko etxebizitza merkatuaren errealitatea ezagutzen inondik inora. Eta hori da balorazioaren eta arazoaren oinarria.

Gure mozio honekin nahi dugu, ahal dugun heinean, arazo horiek konpontzea; batzuk, ahal bada berehala, eta beste batzuk, gutxienez, hurrengo urtean konpontzea 2018an aplikatuko den IBI zergan balorazioak beste era baten egiteko. Eta beraz, laugarren puntua eskatzen dugu zehazki:

1. Azken osoko bilkuran adostutakoa betetzea, hau da, zalantzak argitzeko beharrezkoak diren udaleko langileak herritarren eskura jartzea, ez baita erraza ulertzen etxera katastro-zerbitzuaren jakinarazpena eta balorazioa iristea eta zure etxebizitza V22 dela ikustea; zer esan nahi du horrek? Edo 2000. urtean obrak egin zenituela eta eraikuntza-urte gisa urte hori jarri dutela, egiturazko obrak izan ez ziren arren. Edo zure trastelekua edo terraza etxebizitzako metro erabilgarri bihurtu izana.

Después de cuarenta años, la Diputación ha decidido revisar los valores catastrales y si se renuevan, si se cambian los valores catastrales de los inmuebles, el impuesto municipal cambia totalmente. Creemos, por lo tanto, que si la Diputación toma esa decisión después de cuarenta años, estaría bien que, al menos, expliquen cómo van a materializar dicho cambio, qué criterios se van a utilizar para realizar las modificaciones y si es posible, explicar bien a los ciudadanos el modo de realizar la modificación. Y no ha sido así; establecieron una oficina en Pinondo Etxea y lo que decían en esa oficina era "la culpa de su problema la tiene el Ayuntamiento de Durango, por lo tanto acuda al ayuntamiento a presentar una queja".

No ha habido explicaciones, pero hemos tenido que aprender todos cómo se calculan los valores catastrales y que básicamente hay dos valores; el valor del suelo y el de la edificación. Eso a la hora de valorar viviendas. Para ello, la Diputación creó una zonificación en Durango, y si alguien ha visto esos valores verá muy claramente que quien los haya establecido no conoce de ninguna manera la realidad del mercado de viviendas de Durango. Y esa es la base de la valoración y el problema.

A través de esta moción, queremos, en la medida de nuestras posibilidades, solucionar esos problemas; algunos, si se puede, inmediatamente, y otros, al menos, solucionarlos el año que viene para que así, las valoraciones del impuesto IBI que se aplicará en 2018 se realicen de otro modo. Y por lo tanto, pedimos cuatro punto en concreto:

1. Que se cumpla lo acordado en el último pleno, y es poner a disposición de la ciudadanía el personal municipal que fuera necesario para ayudarle a aclarar las dudas, porque no es fácil que te llegue a casa una notificación del servicio de catastro y valoraciones y veas que tu vivienda es V22, ¿qué significa eso?; o que hiciste unas obras en el año 2000 y te han puesto como año de construcción ese año, a pesar de que no son unas obras estructurales; o que tu trastero o terraza se hayan convertido en metros útiles de una vivienda.

2. Udalak alegazioak aurkezteko garaian beharrezkoa izan daitekeen dokumentazio guztia herritarren esku jartzea; izan ere, etxebizitzaren metro erabilgarrien metro karratuetan akatsak daude, edo garajeak etxebizitza bihurtzen dira.

3. Uste dugu aldundiari tasak ezartzeko garaian progresibitate-irizpidea aplikatzeko eskatu behar zaiola, bi tasa ezartzea soilik baimentzen baitu, eta uste dugu Durangon, etxebizitza tipologiagatik eta batez ere balorazio berri honetan ezarri diren balio katastralengatik, bi tasa baino gehiago aplikatzeko aukera izango litzatekeela eta ordenantza hori fiskalitate arloan progresibitate-irizpidearekin aplikatu ahal izango litzatekeela.

4. Durangoko Udalak, udal gisa, tasazioak egin diezazkiguten eskatzea ondasun higiezinen tasazioen eremuan esperientzia kontrastatua duten bi enpresari. Ontzat ematen dugu eremu ekonomiko homogeneoen inguruan aldundiak egin duen zonakatzea, baina ez dugu ontzat ematen aldundiak metro koadroari eman dion lurzoruaren eragin-balioa, eta, gutxienez, egin dezala Durangoko errealitatea ezagutzen duen norbaitek. Balorazio horri alegazioak egiteko epez kanpo gaudela uste dugun arren, gutxienez, udalak aldundiari udalaren ustez udalerriko lurzoruaren eragin-prezioari dagokion balorazioa zein den esaten badio, aldundiak kontuan izango du 2017 urtean balorazioa aldatzeko, eta gaur egun Durangon dagoen merkatuko errealitatearen arabera lurzoruaren prezio egokiagoak aplikatu ahal izango ditugu.

Hauek dira eskatzen ditugun lau gauzak, badakigu beste arazo batzuk daudela eta hemendik pasatu beharko direla, baina, bitartean, pentsatzen dugu oinarrizko arazo batzuk daudela.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: *"Zentzugabekeria"* eta *"Durangoko bizilagun askori eragindako buruhausteak"* aipatzen dizkiguzue…

2. Que se ponga, por parte de este ayuntamiento, a disposición de la ciudadanía toda la documentación que sea necesaria para la hora de presentar alegaciones, porque hay fallos que son de metros cuadrados de los metros útiles de la vivienda o incluso de garajes que se convierten en viviendas.

3. Creemos que hay que pedir a la diputación que aplique el criterio de progresividad a la hora de establecer los tipos, porque solo permite establecer dos tipos, y creemos que en Durango, por las tipologías de vivienda y sobre todo por los valores catastrales que se han establecido en esta nueva valoración, existiría la posibilidad de aplicar más de dos tipos y aplicar con criterios de progresividad fiscal esta ordenanza.

4. Proponemos pedir como Ayuntamiento de Durango a dos empresas, que tengan contrastada experiencia en el ámbito de las tasaciones de bienes inmuebles, que nos hagan las tasaciones. Damos por buena la zonificación que ha hecho la diputación de zonas económicas homogéneas, pero no damos por bueno el valor de repercusión del suelo al metro cuadrado que le ha dado la diputación; y, por lo menos, que lo haga alguien que conozca la realidad de Durango. Aunque creemos que estamos fuera del plazo para realizar alegaciones a esa valoración, por lo menos, si un ayuntamiento le dice a la diputación cual cree que es la valoración que corresponde al precio de repercusión del suelo de este municipio, la diputación lo tendrá que tener en cuenta en el año 2017 para cambiar esa valoración y nos permitirá aplicar precios de suelo más acordes a la realidad de mercado que existe hoy en día en Durango.

Ésas son los cuatro puntos que solicitamos. Sabemos que hay otros problemas y que tendrán que pasar por aquí, pero mientras, creemos que hay problemas básicos.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Nos vienen hablando de *"despropósitos"*, de *"quebraderos de cabeza que han provocado a muchos vecinos y vecinas de Durango"*,…

Joan den azaroaren 10eko osoko bilkuran onartu zenaren partaide ez bazinete bezala hitz egiten duzue. Ez al duzue gogoratzen? Han bertan zineten bada, eta eman zenuten botoa badakigu eta gogoratzen dugu; zuek ahaztu egin al duzue?

ALDUNDIAK zer egin duen gaizki kontatzen diguzue, zuek gaizki zer egin duzuen gogora ez dezagun. Memoriak ezaba diezagun zuek, EAJ eta PSErekin batera, UDALEAN zer onartu zenuten. Herritarrentzat zer onartu zenuten. Dagoeneko ezagutzen dugun pelikula kontatu nahi diezue herritarrei orain, baina bertsio berriarekin eta errealitatetik urrun. Garrantzitsua da, argi dago, ALDUNDIAK lana ondo egitea, baina zuek ezin duzue ahaztu hemen, UDALEAN, duela egun batzuk EH BILDUK zer onartu zuen gobernuan dituguneі babesa emanez.

Guk uko egin genion Aldundiak "mahai gainean jartzen zigunari". Maiatzeko gure mozioa gogorarazten dizuet.

Eta uko egin genion ekainean osoko bilkuran OHZren erreformari. Alderdi Popularrak eman zuen kontrako botoa. Kontrako boto bakarra. Bai, oso ondo gogoratzen dut. Kontrako boto bakarra Alderdi Popularrarena izan zen.

Orain kontatzen digutena duela bi aste eta erdi konta ziezaguketen. Alderdi Popularrak berriz ere kontrako botoa eman zuen, eta argudiatu zuen boto hori ez zela "zergadun tasa ezartzeko atalasea" 180.000 eurotan izan ordez 140.000tan nahi genuelako, baizik eta ondo egindako zerbait onartzeko aukera genuelako, eta herritarren onuran pentsatuz. Gaizki ari zineten egiten, baina urrats bakarrean egin ordez, bitan egin zenuten. Ohikoa ideiak argi ez dituenarengan.

Orain arrazoi eman nahi diguzuela... ONGI ETORRI. HAU POZA. Lehen egin behar zenuten. Ez uste izan arduragabea izan eta ardurak kanporatu nahi dituenaren mozioa babestuko dugunik. Ez gaude ados. Durangoko bizilagunek badakite hasieratik zer babesten dugun. Eta bi aldiz botoa eman ondoren. Gu bi kasuetan ere kontra.

Hablan como si no se sintieran partícipes de lo que en el pleno del pasado 10 de noviembre se aprobó. ¿No lo recuerdan?, porque estar sí que estaban ustedes aquí, y lo que votaron lo sabemos y lo recordamos; ¿ustedes lo han olvidado?

Nos cuentan lo que ha hecho mal la DIPUTACION para que no nos acordemos de lo que ustedes han hecho mal. Para que la memoria nos vaya borrando lo que ustedes junto al PNV y el PSE aprobaron en el AYUNTAMIENTO. Lo que aprobaron para la ciudadanía, a quien ahora quieren contarles una película que ya conocemos pero de la que ustedes tienen una versión nueva y desacorde a la realidad. Es importante, claro está, que la DIPUTACION haga bien su trabajo, pero lo que hoy no pueden hacer ustedes es olvidar qué se aprobó aquí, en el AYUNTAMIENTO, hace unos días por EH BILDU apoyando a quienes nos gobiernan.

Nosotros nos opusimos a lo que nos "plantaba sobre la mesa" la Diputación. Les recuerdo nuestra moción del mes de mayo.

Y nos opusimos a la reforma del IBI en el Pleno Municipal de junio. Fue el Partido Popular quien voto en contra. El único voto en contra. Sí, lo recuerdo perfectamente. El único voto en contra fue el del Partido Popular.

Lo que ahora nos cuentan lo pudieron contar hace dos semanas y media. El Partido Popular votó nuevamente en contra, y argumentó que ese voto no era porque el despropósito del "umbral de establecer un tipo agravado" lo quisiéramos en 140.000 en lugar de 180.000 euros, sino porque aunque teníamos la posibilidad de aprobar algo bien hecho y pensado en beneficio de los ciudadanos, lo estaban ustedes haciendo mal, pero en vez de hacerlo en un único paso lo hacían en dos. Típico de quien no tiene las ideas claras.

Que ahora nos quieran dar la razón... BIENVENIDO SEA. QUÉ ALEGRIA. Lo tenían que haber hecho antes. No pretendan que apoyemos la moción de quien es responsable y quiere echar balones fuera. No estamos de acuerdo. Los vecinos y vecinas de Durango ya saben lo que desde el principio venimos defendiendo. Y después de votar dos veces. Nosotros en contra en ambos casos.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Mozio hau ere puntuka bozka dadin eskatu nahi dugu. 1. puntuan, ahal dugun guztia egiten ari gara, ahalik eta lasterren, udaleko langileak herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitu ditzaten. Aitortu behar dugu ezin dela izan egun batetik bestera; ez da erraza, kontuaz gehien dakitenek beste lan batzuk dituzte. Hala ere, aurrera egiten ari gara, eta laster, pertsona bat egongo da hori egiteko.

Bigarren puntuari dagokionez, hor ere ados gaude; egia da gustatuko litzaigukeela, amaieran, "legearen arabera izatea beti" eranskina jasotzea, ez baitugu argi hala denik.

Hirugarren eta laugarren puntuei dagokienez, denok dakigun moduan, Aldundiaren eskumena da, Batzar Nagusiak dira foroa. Hemen ordezkaritza dugun alderdi guztiok han ere badugu, eta uste dugu eztabaida hori han egin eta landu behar dela. Ez hemen, baizik eta benetan arazo mota horiek konpontzeko eskumenak dauden lekuan.

Amaitzeko, esan nahi dut Gobernu-Talde hau, EH Bildurekin batera, tasa desberdinak, hau da, hobeak, lortzeko lanean ari dela. Akats horiek gerta daitezkeen unean gaude, ez baita 2017ra arte aplikagarri izango.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Besterik gabe aipatu nahi dut logikoa dela adostutakoa betetzea eta Aldunditik lurzoruaren balorazioen gainean hartutako bidegabeko erabakiak zuzentzeko ahal den guztia egitea.

* 4. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Geu ere itxaroten geratuko gara zein den EH Bilduren erantzuna egindako eskakizunari; puntuz puntu bozkatzearena. Uste dut bigarren puntu horrek bai izan beharko lukeela, "legearen barruan baldin badago" *koletilla* edo esaldia. Gu prest gaude gure eskumenen artean dagoen guztia egiteko, laguntza eta tresneria guztia mahai gainean jartzeko, eta herritarrei laguntzeko.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Queremos pedir que esta moción también se vote por puntos. En el punto número 1, estamos haciendo todo lo posible para que tengamos, lo antes posible, al personal del Ayuntamiento ayudando a la ciudadanía con las dudas que puedan tener. Tenemos que reconocer que no puede ser de un día para otro; no es algo fácil, las personas que más saben de ello tienen otras labores. Aún así, estamos avanzando y, en breve, habrá una persona que pueda hacerlo.

En cuanto al punto número dos, también estamos de acuerdo; es verdad que nos gustaría que se recoja, al finalizar, la coletilla de "siempre que sea acorde a la legalidad" porque no tenemos muy claro de que así sea.

En cuanto a los puntos tres y cuatro, no vamos a entrar en ello; como todos y todas sabemos es competencia de la Diputación, el foro son las Juntas Generales. Todos los partidos que tenemos representación aquí la tenemos allí también, y creemos que ese debate se tiene que dar y trabajar en él; no aquí, sino en el lugar donde verdaderamente haya competencia para solucionar este tipo de problemas.

Quiero finalizar diciendo que este Equipo de Gobierno, junto con EH Bildu, está trabajando en unos tipos diferentes; es decir, mejores. Estamos en el momento de que se pueden dar estos errores porque esto no será aplicable hasta el 2017.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Simplemente comentar que es lógico que se cumpla lo acordado y que se haga lo posible por corregir las decisiones injustas que se han tomado desde Diputación sobre las valoraciones del suelo.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros también esperaremos a la respuesta que EH Bildu ofrece a la solicitud; la de votar punto por punto. Creo que ese segundo punto debería tener la coletilla de "si se encuentra dentro de la ley". Nosotros estamos dispuestos a hacer todo cuanto sea de nuestra competencia, a poner toda la ayuda y todas las herramientas encima de la mesa, y a ayudar a los ciudadanos.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Berriz errepikatuko dut. Guk ez daukagu inolako arazorik esateko ez garela fin ibili eta gure erantzukizunaren parte bat ere badaukagula, eta mozio hau aurkeztea ez da gure erantzukizuna estaltzeko; izango dugu beste Osoko Bilkura baten horren inguruan hitz egiteko eta hartu behar diren erabakiak hartzeko aukera.

Nik uste dut, orduan ere, Alderdi Popularrak kontra bozkatuko duela; ez asmatu duelako gai honetan zer egin behar duen, baizik eta zergen inguruen bozkatzen duenean automatikoki kontra bozkatzen duelako. Dena den, aipatu nahi nuen koherentzia izan zuen boto bakarra, ekainean nahiz azken osoko bilkuran boto bera eman zuena, Alderdi Popularrarena izan zela. Dena den, ez dakit ondo hausnartu duen Durangoko Udalak 2017rako OHZko ordenantza fiskala ez izateak zer eragingo lukeen, aldundiko foru-arauak oso argi esaten baitu; balorazioak aplikatuko zizkiguten, eta ordenantza fiskala aplikatuko ziguten, batek daki zein eta nolakoa.

Gogoan dut Durangoko Udalak zituen tasak 1,06koak zirela 2016 arte. Kontrako botoa emateak ez du esan nahi asmatzen denik; ezezko botoa ematen da sistematikoki bozkatzen delako, udaleko bi ordenantza fiskalei ezezko botoa emateak zer ondorio izan ditzakeen jakin ere egin gabe.

Gure ustez, eta momentu honetan Alderdi Sozialistak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak egindako proposamenaren inguruan, bigarren puntuan esaldi hori sartzea ondo iruditzen zaigu; eskatzen dugun gauza bakarra da interpretatzerako orduan malgutasun apur bat izatea.

Hiru eta laugarren puntuei dagokienez, esaten duzue aldundiari dagokiola, ez dela gure eskumena; guretzat laugarren puntuan agertzen dena betebetean udal honek egin behar duen lan bat da, bere garaian aldundiak egindako balorazioari ez genion alegaziorik egin, eta uste dugu, nahiz eta berandu izan, saiatu behar garela alegazioren bat egiten.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Lo repito. Nosotros no tenemos ningún problema para decir que no hemos estado acertados y que nos corresponde parte de la responsabilidad, y no presentamos esta moción para ocultar nuestra responsabilidad; ya tendremos otro pleno para hablar sobre ello y habrá oportunidad de tomar las decisiones oportunas.

Yo creo que al llegar ese momento, el Partido Popular volverá a votar en contra; no porque haya acertado lo que va a hacer en este tema, sino porque cuando vota en torno a los impuestos, automáticamente, vota en contra. De todas maneras, sí que tenía que comentar que el único voto coherente, el mismo voto tanto en junio como en el último pleno, fue el del Partido Popular. Ahora bien, no sé yo si ha reflexionado qué supondría que el Ayuntamiento de Durango no tuviera una ordenanza fiscal del IBI en el año 2017, porque la norma foral de la Diputación lo dice bien claro; nos hubieran aplicado sus valoraciones, y nos hubieran aplicado ellos una ordenanza fiscal, a saber cual y cómo.

Recuerdo que los tipos que tenía el Ayuntamiento de Durango eran de 1,06 hasta el 2016. Votar en contra no quiere decir que se acierte; se vota que no, porque se vota sistemáticamente, sin ni siquiera saber cuál era la consecuencia de votar que no a las dos ordenanzas fiscales municipales.

En nuestra opinión, y acerca de la propuesta realizada en este momento por el Partido Socialista y el Partido Nacionalista Vasco, nos parece bien incluir esa frase en el segundo punto; lo único que pedimos es que tengamos un poco de flexibilidad a la hora de interpretarla.

En lo que se refiere a los puntos tres y cuatro, dicen que corresponde a la Diputación, que no es de nuestra competencia; nosotros creemos que lo que recoge el punto cuatro es un trabajo que corresponde plenamente a este ayuntamiento. En su día, no presentamos alegaciones a la valoración realizada por la Diputación y creemos que, aunque sea tarde, debemos intentar realizar alguna alegación.

